

# PRODUKTUEN SEGURTASUNA

## Kaskoa erostea



ASMATU  
JOPUNTUAN. ZURE  
SEGURTASUNA  
DAGO JOKOAN

## Irakaslearen Gida Didaktikoa



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ERAGILEK, HEZKUNTZA  
ETA LANBIDEA  
DIBISIONEK



COMISIÓN EUROPEA

Kontuztuzkoaren Nazioarteko SAREA Europako Kontuztuzkoaren Zehatzak Akordatzen ditu. Zerbitzu hauen erabilgarritasuna Erakundeak hainbat parte (Kanariak, Asturias, Valentziako Komunitatea, Galizia, Gazteler-Mantxa, Euskal Autonomia Erakundeak, Ekinakomun, Miedri, Aragoi, Gazteler eta Leizoi, Ertokia, Kataluniar eta Kataluniar) eta beste estatuek (España, Portugal, Italia, Grezia eta Frantzia). Ogasun eta Kontuztuzko Ministerioaren (Kontuztuzko Institutu Nazionalak eta Hezikuntza, Kulturak eta Kirolen Ministerioaren (Europako proiektuak) Zuzendariaren Nazioarteko agentzia jaso da



# Kaskoa erostea

## SEGURTASUNEKO DEKALOGOA



- 1. Jakin behar duzu kasko mota desberdinak daudena: motorrerako, bizikletarako, hipika egiteko... Ez ezazu inoiz hipikarako kasko bat motorrean ibiltzeko erabili, erremedioa kaltea baino okerragoa izan daiteke eta. Kasko bat erosi behar baduzu, aukera ezazu egingo duzun jarduerarako egokia dena.**
- 2. Kasko bat erosteko orduan, gogoan eduki zure segurtasunari dagozkien gaietan ez duzula aurreztu behar. Prezioa ez da garrantzitsuena, kasko homologatu eta segurua izatea. Erosi aurretik, informa zaitez ondo, erka itzazu prezioak eta kalitateak.**
- 3. Exijitu kaskoa Europako araudiaren arabera homologatua izatea. Begira ezazu ea homologazio etiketa barruan josita daraman.**
- 4. Ondo ikusi ahal izateko, hobe duzu bisera argia duen kasko bat erostea, tindatua ez dena, marratzen ez dena eta, ahal bada, lurrintzen ez dena.**
- 5. Denda espezializatu batera zoazenean, eskatu aholkuak eta frogatu itzazu, lasai asko frogatu ere, marka, modelo eta neurri desberdinak.**
- 6. Gogora ezazu kaskoa oso doitu egon behar dela, baina buruaren edo lepoaren inongo alderdirik sakatu gabe. Halaber, ez da mugitu behar burua bizkor mugitzen duzunean. Har ezazu behar duzun denbora guztia kaskoa aukeratzeko.**
- 7. Kaskoaren loturak jartzean, kaskoa guztiz lotuta gelditu behar da, bestela lurrera jaustekotan bera izango da jauzi egingo duen lehena.**
- 8. Kasko batek kolpe handi bat jasan duenean edo 1,50 metrotik gorako altuera batetik jausi denean egituraren kalteak izan ditzake, eta istripu baten aurrean erabilgarri ez izatea ere gerta daiteke. Zalantzak badituzu jar zaitez kontaktuan dendarekin, fabrikatzailearekin edo inportatzailearekin, kalteak egiazta ditzaten.**
- 9. Garrantzitsua ez da kasko bakarrik, baizik eta gainerako jantzi guztiak ere: norbanako babes ekipo on batek ere (material erresistentezko arropa, belaunekoak, eskularruak eta abar) badauka zerikusirik zure babes eta segurtasunean.**
- 10. Gogoan eduki kaskoa derrigorrezkoa dela (isuna ipini ahal dizute jarrita ez badaramazu) eta buruan jarrita daramazunean soilik babesten zaituela. Kaskoa besotik eskegita badaramazu, jausten bazara, besoa eta burua apur ditzakezu.**

### AURKIBIDEA

|              |       |                              |       |
|--------------|-------|------------------------------|-------|
| 1. SARRERA   | >>> 1 | 4. JARDUERAK                 | >>> 3 |
| 2. HELBURUAK | >>> 2 | 5. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK    | >>> 8 |
| 3. EDUKIAK   | >>> 2 | 6. INFORMAZIO INTERESGARRIAK | >>> 8 |

Argitaratzailea: Kontsumitzailearen Hezkuntza Sarea  
<http://www.infoconsumo.es/eecred>

Egileak:

Nieves Álvarez Martín  
Laguntzaileak

Leticia Ortíz Bedia, M<sup>a</sup> del Pilar González Echezarreta,  
Ana Vallejo Echezarreta, Iratxe Bilbao Bustingorri

Diseinua eta maketazioa:

M<sup>a</sup> Isabel Gómez Bedia  
M<sup>a</sup> Luisa Lavín Solana

Ale-kopurua:

Autonomia Erkidego bakoitzerako koordinazioa:

Gonzalo Sánchez Moreno (Kantabria)  
Rafael González del Busto (Asturias)  
M<sup>a</sup> José López Ródenas (Valentziako Erkidegoa)  
Esther Álvarez Fernández (Galizia)  
Alejandro Salcedo Aznal (Gaztela-Mantxa)  
Arrate Martínez de Guereñu (Euskal Herria)  
José M<sup>a</sup> Iglesias Sánchez (Extremadura)  
Susana Gil (Madril)  
Francisca Pérez Jiménez (Aragoi)  
Carmen Herrero Álvarez (Gaztela eta Leon)  
Susana Conde Escorihuela (Errioxa)  
Luis Domínguez Rodríguez (Kanariak)  
Julià Guimerà Gargallo (Katalunia)

Lege Gordailua:

Inprimaketa: J. Martínez S.L.



# I. SARRERA

1992. urtean motoziklista guztiek hiriko eta hiriarteko guneetan kaskoa derrigorrez erabili behar zutela xedatu zuten, horren erabilera pixkanaka zabaldu zela.

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (TZN) eman dituen azkeneko datuen arabera, kaskoaren erabilera Espainian handitu da, eta gaur egun batezbestekoa %74koa da. Hala ere, batezbesteko hau Bartzelona edo Madril bezalako hirietan gainditu ohi dute, nekazaritzako eta kostaldeko eremuetan, aldiz, erabilera txikiagoa izaten da.

Iturri berberen arabera, Espainian 2000. urtean hil ziren hamar motoziklistetatik lauk ez zeramaten kaskorik, eta bidaideei buruzko datuak begiratzeko baldin baditugu kopuru hori hamarretatik seira iristen da. Kaskoa erabiltzeak bere erabiltzailearen segurtasuna handitzen du, motozikleta-istripu baten ondoren heriotza eragiten duten zauriak izateko aukera %29 murrizten du. «Kaskoak zure bizia eta gainontzekoena salba dezake».

Dauden kasko motak ezagutu nahi baldin baditugu, erabiltzen dituzten jarduerak kontuan hartu behar ditugu. Ez gara zenbat kasko dauden asmatzen edo zerrendatzen saiatuko, baina kasko bakoitzak jarduera zehatz batean erabiltzeko diseinatu dutela ulertu behar dugu. Esate baterako, eraikuntzan beharginek erabiltzen duten kaskoa kirolariek erabil dezaten balio dezakeenik pentsatzerik ez dago edo hipikan erabiltzen duten kaskoa motorrean joateko balio dezakeenik.

Egia da kaskoetan, oro har, hainbat ezaugarri komun ikus ditzakegula, hau da, kaskoak babesteko batera lan egiten duten osagaiak dira. Izan ere, kaskoak edozein jardueratan duen eginkizun nagusia burua babestea baita. Osagaiok honakoak dira: kanpoko kaskoa, inpaktuen absortzioa, kaskoa eroagoa izan dadin lortzen duen betegarria eta eusteko sistema.

Horrek guztiak material honen beharra agerian uzten du, berau oso erabilgarria gerta daitekeena Kontsumitzailearen Hezkuntzako proiektuen garapenean, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako azkeneko mailako ikasgeletan arloetako kurrikuluko hainbat eduki jorratzeko, hori egiten dugun aldi berean gazteak interesgarria gertatzen zaien gai batean heziko ditugu informatuta daudela eta segurtasunez aritu daitezten. Beharrezko egokitzapenak eginda, proposatzen ditugun jarduera askok Batxilergoan eta pertsona helduei zuzendutako jarduketetan ere balio dezakete, dela Araututako Irakaskuntzaren barruan dela horretatik kanpo.

Ikasleek kaskoa erabiltzea zergatik den hain garrantzitsua uler dezaten saiatuko gara. Motoziklistek nahitaez erabili behar dituzten kaskoek nagusiki hitz egingo dugu, erosteko momentuan zer jakin behar duten, bere ezaugarrien arabera ematen duten babesa, bere osagaiak, zaintzeko eta mantentzeko egin behar dutena ...

12 eta 18 urte bitarteko ikasleak (material hau hauei zuzentzen dietela) iragaitzan edo dagoeneko nerabezaroaren lehen etapa zeharkatzen ari dira. Askok motozikletak erabiltzen dituzte (derrigorrezkoa den kaskoa erabiltzen ez dutela) eta beste asko motoetan interesa izaten hasi dira. Aldi honetan ere aldaketa afektibo sakonak eta munduarekin dituzten erlazio eta balioenak ere gertatzen dira, kaskoaren gaian segurtasunak duen garrantzia baloratzen ikasi behar dute; kasko batek bere biziak salba ditzake. Ideien mundua oso erakargarria dela agertzen zaie eta mundu horretan bere balio eta jarrera personalak garatuko dira. Adimen-aldaketek eragiketa logiko-formalak ahalbidetzen dituen izaera abstraktuko pentsamenduan aurrera egitea ahalbidetzen diete, esparru honetako arazoak konpontzen oso erabilgarriak direnak. Arrazoitzeko gaitasunaren garapenari hasiera eman, hainbat aukera aztertu eta hipotesiak formulatuz eta egiaztatuz ikertu ahal dute. Kontzeptu ekonomikoak ulertzen dituzte eta gizartearen zerbait dinamikoa bailitzan ikusten dute. Gizakiak zerbait egitera eramaten



dituzten arrazoiak ulertu behar dituzte. Era askotako harremanak finka ditzakete eta gertaera bakar batek hainbat kausa izan ditzakeela eta kausak elkarren artean lotuta egon daitezkeela ulertzeko gauza dira. Hiperkritikoak dira, esperientziak, sentsazioak, sentipenak... konpartitu behar dituzte. Taldeak eragin handia du gizabanakoarengan.

Hori guztia dela kausa, gazteei, oro har, eta kasko bat erosteko interesa dutenei zehazki «segurtasunez» egiteko beharrezkoak diren ezagupenak eskaintzea funtsezkoa da. Finkatutako betebeharrak eta debekuak kontuan hartzeaz gain, bere arriskuak, bere ondorioak eta horiei aurrea hartzeko modua ere kontuan hartzen dutela .

Irakasleek ikasgelako programazioetarako ideia eta tresna erabilgarriak aurki ditzakete: helburuak, edukiak, jarduerak, konponbideak, ebaluatzeko irizpideak, dokumentazioa... dituztenak. Materialarekin batera ikaslearen koadernoak ere badago, bertan hemen proposatzen ditugun jarduerak garatzeko fitxa erabilgarriak eta bere kasa egin ditzaketen denbora-pasak daudelarik.

## 2. HELBURUAK

### HELBURU NAGUSIAK:

- Gazteei, oro har, eta pertsona helduei kaskoa segurtasunez aztertu, erosi eta erabili ahal izateko beharrezkoak diren ezagupenak ematea.

### HELBURU ZEHATZAK:

- Kasko baten egitura, bere funtzionamendu onena eta erabiltzeko orduan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak ezagutzea.
- Kasko mota ezberdinak, erabiliko dituzten jarduera motaren araberako horien sailkapena.
- Moto bat egokia den kaskoa eraman barik gidatzen dutenean sor litezkeen nahi gabeko ondorioak ezagutzea.
- Ongi informatuta egoteak eta bere Autonomia Erkidegoan aplikagarria den indarreko araudia ezagutzeak duten garrantziaren berri izatea.

## 3. EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK:

- Kaskorik gabe gidatzearekin lotuta gure herrialdean dagoen ezbehar-tasa ezagutzea.
- Kaskoen inguruko legea ezagutzea.
- Erabiltzeko eta prebentzioko baldintzak segurtasun handiagoa izateko.

### PROZEDURAZKOAK:

- Kaskoa erabiltzean kontuan hartu beharreko punturik garrantzitsuenak aztertzea.
- Analisi eta behaketaren bidez, kasko bat erabiliko duten jarduera kontuan hartu.
- Istripuak saihesteko eta hauek gertatzen direnean aritzeko egon litezkeen balizko estrategiak planteatzea.
  - Kaskoa ez erabiltzearen inguruko ezbehar-tasari buruzko azterketa.
  - Kaskoaren erabileraren inguruko mitoak desegiteko hausnarketa-prozesua.
  - Tailer praktikoak.



## JARRERAZKOAK:

- Kaskoaren erabilera kritikoki baloratzea.
- Esparru honetan informazioa izateak duen garrantzia positiboki baloratzea.
- Aurrea hartzeak duen garrantzia baloratzea.

**EZAGUTZA-ALORREKIN**

*Geografia - Historia eta  
Gizarte-zientziak  
Hizkuntza eta Literatura  
Zientzien alorra: Fisika,  
Kimika  
Arte eta Plastika-  
Hezkuntza*

**GAIAREN HARREMANAK**

**BESTELAKO ZEHARKAKO  
BATZUEKIN**

*Osasunerako  
Hezkuntza  
Berdintasunerako  
Hezkuntza  
Kultur arteko  
Hezkuntza eta  
Elkartasuna*

Gai honetan ikasgelako lana ikasleek aurretik dituzten ideiak zalantzan jartzen ditugula. Izan ere, hasiera batean dituzten kontzepzioak zalantzan jartzen ditugunean bakarrik ezagupen berria sortzeko gauza baitira.

Mahai gainean moto bat gidatzen dugunean kaskoa erabiltzearen, prebentzioaren, istripuen... inguruko ideia ezberdinak jar ditzakegu eztabaidari hasiera emateko asmoz. Hau metodologiaren parte garrantzitsua izan daiteke.

## 4. JARDUERAK

### I. JARDUERA: KASKO BAKOITZA BERE FUNTZIORAKO

Lehendabiziko jarduera honetan ikasleak jarduera batean erabiltzen duten kaskoa beste batean erabiltzen dutenaz ordezkaterik zergatik ez dagoen ulertu beharko du. Hau da, kasko ezberdinak eginkizun ezberdinetarako dira. Jardueran gorputzak egiten dituen mugimenduak kontuan hartzeko aztertuta daude eta, istripua gertatzekotan babesteaz gain, motorrean edo txirringan joateko aurreikusita ez dagoen kaskoa erabiltzeak izan litzakeen bizioetatik (edo kalte txikiak) babesten dituzte.

Ikasleen materialaren **1. fitxan** hainbat kasko motako argazkiak edo marrazkiak ageri dira. Horietako bakoitzak erreferentziatzat jarduera bat du. Ordenarik gabe jarri dituzte jarduera garatzea eta ikasleek hausnarketa egitea ahalbidetzeko asmoz. Hau da, zenbakia eta irudia ez datoz bat. Jarduera garatzean ikasleak kasko bat diseinatu dutena ez den jarduera batean zergatik ezin duten erabili azaltzen saiatu behar du. Hau da, kasko bakoitzaren irudia eta jardueraren izen zuzena batu behar dituzte.

### Soluzioak:

| IRUDIAREN ZKI. | ERABILTZEN DUTEN JARDUERAREN IZENA  |
|----------------|---|
| 1              | Meatzarien kaskoa.  |
| 2              | Errugbiko kaskoa.   |
| 3              | Motoziklistaren kaskoa.   |
| 4              | Txirringararien kaskoa.   |
| 5              | Beisboleko kaskoa: Catcher izeneko jokalaria kaskoa da, horrek aurpegi osoa babestuta izan behar du, taldean kolpeak errazen jaso ohi dituen jokalaria da. Bere kaskoa gainontzekoenaren bestelakoa da. |



Ikasleei kaskoa erabiltzea beharrezkoa duten jardueren inbentarioa egitea eta topatzen duten jarduera bakoitzaren informazio grafikoa eta deskriptiboa bila dezaten proposatu ahal diegu.

Interesgarria izan daiteke kasko eta marken katalogoa prestatzea. Horrek motorretarako gehien saltzen dituzten marken konparazio-analisia egiteko bidea eman dezake. Interesgarria da aukeratzeko eta marka ezberdinek kalitate eta segurtasuneko eskakizunak betetzen dituzten.

## 2. JARDUERA: ZEIN DIRA KASKO BATEN OSAGIAK?

Lesioak saihesteko orduan kaskoa erabiltzea ezinbestekoa dela kontuan hartuta, jarduera honen helburua ikasleek kaskoaren osagaiak zein diren eta horietako bakoitzak duen helburua zein den ezagut ditzaten da.

Ikaslearen materialaren **2. fitxan** kasko baten argazkia ageri da, irudi horretan bere zati guztiak zerrendatuta ageri dira (argazki hori 2002. urteko martxoaren Revista de Tráfico izenekotik hartu dute). Ikasleek zati bakoitza identifikatu eta horiek fabrikatzeko erabili dituzten materialak eta parte bakoitzak betetzen duen eginkizuna asmatu beharko lituzkete. Hau da, leku egokia izena jarri behar dute eta bere eginkizuna zein den zehaztu behar dute.

### Soluzioak:

| KASKOAREN ZATIAK                   | BERE ERABILGARRITASUNAREN DESKRIBAPENA  |
|------------------------------------|---|
| <b>1. Barruko karkasa</b>          | Babesteko betegarria da, bere helburua kolpearen energia ahalik eta gehien hartzea eta burmuina garezur-barrunbearen barruan mugitzea murriztea da.                                     |
| <b>2. Kanpoko karkasa</b>          | Gehien ikusten den kaskoaren zatia. Zurruna da eta inpaktuaren energia bere azaleran zehar hedatu behar du, berau murrizten duela eta objektu zorrotzen bat sartzea saihesten duela.    |
| <b>3. Pantaila</b>                 | Begiak eta arnasbideak haize, intsektu edo bestelako elementuetatik babesten ditu. Onenek marra, erreflexu, lurrun eta izpi infragorri eta ultramoreen aurkako tratamendua izaten dute. |
| <b>4. Aireztatzeko sistema</b>     | Arnasbideetarako airearen sarrera baheztatua ahalbidetzen du eta burua erabiltzaileari eragozpenik egin gabe hozteko ere bai.   |
| <b>5. Eusteko sistema</b>          | Eroriko edo kolperen bat izatekotan motoristaren burua irristatzea eragotzi behar du. Lotuta joan behar du eta kaskoa estutu behar du istripua gertatzekotan aurreraka atera ez dadin.  |
| <b>6. Erosotasuneko betegarria</b> | Babesteko betegarria eta burua banatzen dituen ehuna da, eroso gertatzen dela. Ehun batzuek aireztapena errazten dute eta transpirazioa hartzen dute usainak egitea saihesten dela.     |

## 3. JARDUERA: KASKOA EROSTEA. KONPARAZIO-ANALISIAK

Informazio interesgarrietan gaineratu dugun dokumentazioaren bidez, kaskoen konparazio-analirako jarduera prestatu ahal dezakegu. Ikasleek dituzten kaskoak aztertu ahal genitzake. Talde bakoitzak analisiko taula bat egin beharko luke ahalik eta datu gehien eskuratzeko asmoz.

Kaskoa aukeratzeko orduan kontuan hartu behar duguna:

- Homologatuta egon dadin.
- Burua eta aurpegia babes ditzaten.
- Neurri egokia izan behar du: ahal bada estututa geratu behar da, kontuz! Denbora pasatzean laxa daiteke.



- Bekainen, belarrien gainetik eta buruaren atzeko aldearen inguruan geratu behar du. Hainbat bider probatu beharra dago seguru egon arte.
- Kopetan marka gorriak uzten ez dituela eta buruko presio-guneak deserosoak izan ez daitezzen egiaztatu behar duzu. Izan ere, buruko mina eragin dezakete.
- Betegarriek masailak ukitu behar dituzte presionatu gabe era deserosotasun-sentsazioa eragin gabe.
- Ongi aukeratu dugula ziurtatzeko asmoz, kaskoa buruan, uhalak estututa, jarrita dugunean, burua alde batera eta bestera eta gora eta behera mugitzen saiatuko gara. Kaskoa ez da burua baino azkarrago mugitu behar.
- Ahal bada kolore argiak eta biziak edo material distiratsuak dituztenak aukeratuko ditugu. Izan ere, gainerako gidariek eta oinezkoek erraz ikustea ahalbidetuko baitute.
- Astunegia gertatzen ez den kaskoa bilatu behar dute. Izan ere, zerbikaletan molestiak eragin baititzake.
- Karbonozko karkasa edo kevlar duen kaskoa hautatu behar dugun erresistentzia handiagoa dute.
- Pantailak marren (antiscrach) eta lurrunen (antifog) aurrean erresistentea izan behar du.



Kaskoa jarri ondoren bestelako azterketa batzuk egin behar dituzu kokotsaren uhalak estutu baino lehen:

- Betegarriek masailak ukitu behar dituzte deseroso presionatu barik.
- Loki eta bekainen aurrealdeko betegarrien artean ez da tarterik egon behar.
- Kaskoak lepoaren atzeko aldean betegarria izatekotan, ez duzu buruaren atzeko alde presionatu behar.
- Kasko itxietan, kokotsaren aurreko aldean bultzatu behar duzu. Ez kaskoak ezta biserak ere ez dituzte bere sudurra edo kokotsa ukitu behar. Bultzatzean sudurra edo kokotsa ukitzen baditu, gidatzean ere egingo du.


#### 4. JARDUERA: SEGURTASUNEZ GIDATZEN AL DUGU?



Jarduera honen helburuak argiak dira: kaskoari ematen dioten erabilera baloratzea; motozikleten erabiltzaileek kaskorik gabe gidatzen dutenean dauden arriskuez duten ezagupen-maila ebaluatu ahal izatea; erabiltzaileek zer puntutaraino ezagutzen duten kontrol eta mantentze egokia egiteak eta horren aukera ona egiteak duten garrantzia deskubritzea.

Balorazioa ikasleek egingo dute bere materialaren 3. fitxan dagoen inkestaren bidez. Ikasleei inkestak bere ingurunean egitea proposatuko zaie; ikastetxean, senideen artean, lagunen artean,... etab. Motorrak gidatzen dituztenak, baina baita gidatzen ez duten arren motoan doazenak, bidaideak,... etab. ere, inkestatu beharko lituzkete.





Informazioa bildu ondoren, eskuratutako emaitzak aztertuko dituzte. Inkesta betetzean egin litzaketen hutsegiteak detektatzeko prestakuntzako mekanismoa finkatu beharko dute. Baina, batez ere, erantzuna oso ongi aztertu behar dute kaskoaren erabileran dauden hutsegite nagusiak aurkitzeko asmoz. Hori egiteko finkatzen dituzten lan-taldeek ideiak eman behar dituzte errore horiek zuzentzeko. Modu horretan jardueraren edukiak ikasi dituzten eta prozesu osoa nola barneratzen duten jakingo dugu.

Jarduera honek motozikleta eta motoak gidatzeko orduan dagoen segurtasunaren inguruan eskuratutako emaitzekin eztabaida irekitzeko bidea emango du.

### Inkestaren soluzioak:

Planteatu dugun inkesta mota dela eta, erantzunak baleko/asmatutzat emateko aurretik zehaztutako informazioa izan behar dute. Arrazoi horregatik, dagokion atalari lotuko gatzaizkio.

Inkestaren emaitzak baloratzeko orduan, agerikoa da segurtasunez gidatzeak hamabi galderi zuzen erantzutea dakarrela. Hortik aurrera zenbat eta hutsegite gehiago izan, gaiari buruz orduan eta ezagupen txikiagoa dutela erakusten dute.

Eztabaida egiten dugunean, ikasleei honako galdera egin ahal diezaiekegu:

- Inkestan ager daitezkeen hutsegite guztietan, zein dira zure iritziz larrienak?
- Beraien ustez zenbat hutsegite nahikoa izango lirateke motoak gidatzeko lizentzia (ahal izanez gero) kentzeko erabakia hartzeko?



Ikerketa honi aldagai bat gaineratu ahal diogu sexu eta adinaren faktoreak gehitzen baldin baditugu, hau da, inkestatutako pertsona bakoitzaren sexua eta adina jasoko ditugu. Informazioa bildu ondoren, bi faktore hauek gidari seguruagoak edo aurkitzerakoan eragiten duten aztertu ahal izango dute.

Datuak estatistika edo grafikoen bitartez ematea interesgarria izango litzateke.

### Inkestaren erantzun zuzenak:

1. Bai.
2. Bai.
3. Ez, ibilbide luzeak egiten dituztenean egiaztapenak ohi baino zehatzagoak izan behar dira.
4. Bai.





5. Bai, .....(inkestatuak zehaztu du)
6. «Kaskoa erostea» izena duen informazio-atalean jasota dauden puntuetako edozein.
7. Bigarren eskukoa.
8. Bai, «Kaskoa erostea»izenburua duen informazio-atalean zehaztutako egiaztapenak egitea.
9. Bai, informazioa «Kasko baten zatiak» atalean topatuko dugu.
10. Bai, informazioa «Kaskoa mantentzea» atalean topatuko dugu.
11. Bi urtean behin.
12. Pantaila marren (antiscrach) eta lurrunaren (antifog) aurrean erresistentea izan behar da, horretaz gain eguzkiak gogor jotzekotan gure ikusmena babestu behar du.

### Aukerako jarduerak egiteko proposamena

#### Ingurunea aztertzea

Kaskoa erabiltzeak dakarren segurtasunaren aurreko portaeraren ikerketa zabalduko dugu, ikerketa hurbileko ingurunean egiteaz gain (ikastetxea, familia, lagunak...) haratago ere eramango dugu.

Ikasleei aldi batez kalean topatzen dituzten motoen gidariei, zineko filmetan edo telebistan, oro har, eta baita publizitatean ere (edozein euskarrik balio du) agertzen direnei begiratzea proposatu ahal diegu.




Astunegia izan ez dadin bere ikerketen emaitzak behin bakarrik, eguna amaitzerakoan, apuntatu ahal dituzte. Ikerketa egiteko zuhurtziazko denbora (irakasleak erabakitzen duena)igarotzen denean, ikasle bakoitzak datuak ikasgelara eramango ditu eta gainerako ikaskideei azalduko dizkio.

Horrela, eragin handia duen ingurune batek kaskoaren erabilerari buruz duen portaera aztertu ahal izango dute.

#### Bestelako jarduerak egiteko proposamenak:

Ikaslearen koadernoan jasota dauden denbora-pasa eta bestelako ideien inguruan egon daitezke: moto baten zatiak ezagutzea adibidez.



## 5. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

3. jarduera egindako jarduera guztiak ebaluatzekeo tresna egokia izan daiteke. Hala ere, irakasle bakoitzak ebaluatzekeo bere tresnak diseinatu edo zirriboratu ahal ditzake:

- Behaketa-ereduak.
- Ikasleek, beste irakasle batzuek, familiek, ... etab.ek erantzun behar dituzten bestelako galdera-sortak, horiek hauei buruzkoak dira:
  - *Planteamenduen egokitasuna.*
  - *Plangintza: ikerketa, tenporalizazioa eta erabilitako materialak.*
  - *Ikasleen egokitasuna: interesa, ulermena eta erabiltzen errazak izatea.*
- Bestelako jarduerak eta tailer praktikoak.

## 6. INFORMAZIO INTERESGARRIAK

### 6.1. Zergatik erabili behar dugu kaskoa?

Galdera honi erantzuten saiatzeko, minutu batzuek moto batean igotzen garenean izaten dugun babesa zein den baino ez dugu pentsatu behar, «batere ez». Gorputza motoziklistek kolpeak jaso ditzaketen atal nagusia da. Gainera, kolpea gertatzen den momentuan kanpora ateratzeko arriskua dago.

Hori dela eta, ezinbestekoa da egon daitezkeen babesteko elementu guztiak erabiltzea. Hala gidariarentzat nola bidaidearentzat garrantzitsuenetakoa eta derrigorrezkoa den babesteko elementu bat kaskoa da. Motoen istripuetan kolpea jasotzea errazena den atala burua da. Egin dituzten ikerketa askok abiadura berean doazela kaskoa eramaten duen motoziklistak eramaten ez duenak baino lesio gutxiago izaten ditu. Gainera kaskoak ematen duen babes-maila handiagoa izaten da 50 km/h.eko abiaduran doazela hortik aurrerago baino. Horregatik, «ibilbide laburra da, eta mantso noa, beraz, zertarako eramango dut!» dioen pentsamendua ezabatu behar dugu. Eta gure ikasleek batez ere jakin behar dute kaskoa oso garrantzitsua dela bai gidariarentzat nola bere bidaidearentzat.

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak kaskoaren erabilera zaintzeko eta zabaltzeko kanpaina (2002) egin zuen bitartean berau erabiltzeko bost arrazoi azaldu zituen, horiek honakoak dira:

- Hildako kopurua heren batean baino gehiago murrizten du.
- Garun-lesioak istripuen %65ean saihesten ditu.
- Zainketa Intentsiboetako Unitatean sartzeko arriskua erdira murrizten du.
- Ospitalean egon beharreko denbora %50ean murrizten du.
- Babesten du ikusmena eta entzumena mugatu gabe.



## 6.2. Betebeharrak

Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da motorra duten bi gurpileko ibilgailuen gidarientzat eta bidaideentzat, sidekarra duten ala ez, hiriko zein hiriarteko bideetan ibiltzen direnean. Kaskoek indarrean dagoen legeriaren arabera homologatuta edo ziurtatuta egon behar dute.

Homologatzeko prozesuak, besteak beste, kaskoak hainbat kontrol gainditu dituela ziurtatzen du, hala nola inpaktuaren absortzioa, ikuspen periferikoa, alboko eta aurreko deformazioa, hezetasun eta tenperaturako baldintzak .

E letra Europako homologazioari dagokio. Zenbakiak probak egin dituzten herrialdearen berri ematen du. 22.05 homologazioak UN/ECE22.04 homologazioa ordezkaturiko du, azken hori askoz zorrotzagoa da eta eredu berriek dagoeneko hori betetzen dute. Kaskoa ez erabiltzea, arriskua izateaz gain, 91 euroko zigorra eta ibilgailua geldiaraztea ekar ditzake.

## 6.3. Kaskoa erostea

Oroz gain, kaskoan garrantzitsuena duena bere eginkizun nagusia betetzea da, burua babestea alegia. Hori dela kausa, buru osoa estaltzen duten kaskoak (integralak) aurpegiari babesa ematen ez diotenak baino hobekia izango dira (Jet motakoak).

Kaskoen hainbat eredu daude, diseinu eta kalitate daude. Horregatik, funtsezkoa da segurtasun-eskakizunak hobekien betetzen dituen (homologatuta egoteaz gain) eta buruari hobekien egokitzen zaiona bilatzea da. Merkatuan dauden kasko eta eredu mota ezberdinak probatu behar ditugu, denak ez zaizkio buruari ongi egokitzen. Informazio gehiago eskuratzeko eta RACC erakundeak ADAC

(Alemaniako Automobil Klub) izenekoaren lankidetzan Europako merkatuan dauden hainbat kasko erabiltzaileari ematen dioten segurtasun eta babes mailari buruz egin duten ikerketaren emaitzak ikusteko <http://la-plaza.com/vdc/media/Dossier%20BCN%20cast.doc> izeneko web gunera jo behar dugu.

## 6.4. Kaskoa probatzen

Kaskoari kokotsean dauden uhaletatik eutsi behar diozu. Kaskoaren fondoak zure aurrean egon behar du kaskoaren aurrea beherantz dagoelarik. Hatz lodiak uhalen barnean jarri, kaskoa hatz puntetz kulunkatzen duzula. Kaskoaren aldeak banatu eta kaskoa buruan behera labaindu.



Kaskoak eroso dagoela doitu behar du eta hasieran buruan zuzen egokitu arte apur bat estututa egon daiteke. Kaskoa buruan zehazki geratzen dela ziurtatu behar duzu. Ez da atzeraka emana egon behar kapela bailitzan. Gogoratu, zure kaskoa handiegia baldin bada hainbat gauza gerta daitezke. Kaskoa zure buruan goitik behera mugituko da momenturik okerreanean. Eramatea oso deserosoa izan daiteke zarata ateratzen duelako eta haizea sartzen uzten duelako. Istripua gertatzekotan, kaskoa buruan behera labaintzea gerta liteke.



Kaskoa buruan doitu dagoenean uhalak estututa daudelarik, kaskoa alde batetik bestera eta goitik behera mugitu behar duzu eskuez. Kaskoa behar bezala baldin badago, buruko ile-larrua kaskoa mugitzen den aldi berean mugituko da. Kaskoak presio txikia egin dezake buruan. Era berean, gogoan izan behar duzu kaskoak erabilera dela eta eman egingo duela. Hau da, kasko berria eroso dagoelarik ahalik eta estuen egon beharko da.



**3. jardueran** aipatzen dituzten probak egin beharko dituzte. Orain, kokotseko uhalak segurtatuta daudelarik, kaskoa mugitzen edo biratzen saiatu behar. Kaskoa neurrira gelditzen bazaio, ezin duzu kendu behar. Kentzerik baldin baduzu, kaskoa handiegia da.

Kaskoa ken ezazu, Zure buruaren alderen batean minik al duzu? Zure kopetan orban gorriak al duzu? Buruko presio-guneak deserosoak izan daitezke eta bidai luze baten ondoren buruko mina eragin dezakete, beraz, kaskoak ez dizula buruko minik ematen ziurtatu behar duzu. Horrela bada, kasko horren orde handiagoa den beste bat hartu beharko duzu. Gizakion buruak ez dira dena itxura berekoak, kaskoak ez diren bezalaxe.

Oraindik kaskoa ongi doakizula ziur ez baldin bazaude, erosi baino lehen dendaren barruan zaudela aldi batez eraman ezazu, horrela, eroso dagoela ziurtatu ahal izango duzu. Kaskoa inbertsio handia da, ez du inporta bere salneurria zein den. Aukeratzen duzun kaskoa zuretzako egokiena dela ziurtatu beharko duzu.

Bi aldagai horietaz gain, kaskoa aukeratzean kontuan hartu behar ditugun bestelako faktoreak ere badaude:

- Kaskoak, ahal bada, kolore bizi eta argikoak izango dira, eta, ahal den neurrian, bestelako material distiratsuez konbinatu behar ditugu.
- Ez dute akatsik, arrailik, betegarri solterik edo metal ageririk izan behar.
- Betaurrekoak erabiltzen dituzten pertsonak kaskoa jarrita dutenean ongi egokitzen direla egiaztatu behar dute.
- Erosi baino lehen gomendagarria da kaskoa probatzea, horrela, hainbat propietate egiaztatu ahal izango dituzte, esaterako soinuak gehiegi isolatzen baditu edo ongi ikustea ahalbidetzen duen.
- Bisera jaitzita dagoelarik aireztapen nahikorik dagoela egiaztatu behar dute. Lurrunaren aurreko erresistentzia zuzena ez baldin badago, biseraren bertsio bereziak eskatu ahal dituzte edo alderdi hori hobetzeko biserari geruza berezia aplikatu ahal diote.



- Kaskoak ez baldin badu aurpegia estaltzen, gomendagarria da betaurreko bereziak eta inpaktuekiko erresistentzia handia dutenak, begiak haize, zikintasun-partikula, euri eta aurretik doazen ibilgailuek bota ditzaketen elementuen aurrean babesten dituztenak erabiltzea gomendagarria da.



## 6.5. Motoziklistentzako kasko motak

Motoziklistentzako kaskoak duten eginkizun zehatza eta jasan ditzaketan aldagaiak, hala nola inpaktuak, temperatura-aldaketak, ikuspen eta erosotasuneko angelu ezberdinak, kontuan hartuta diseinatuta daude.

Nagusiki bi kasko mota daude motoziklistentzat: integralek eta Jet motakoak.



Integralek buru osoa estaltzen dute eta gehien gomendatzen dituztenak dira. Barietate handia dago, horietako batzuek kokots eraisgarria dute.



Jet motakoek, ordea, ez dute kokotsa edo masailak estaltzen dituen parterik. Horietako batzuek mugi daitekeen pantaila edo bisera dute.

## 6.6. Kaskoaren zatiak

Kaskoek, funtsean, oinarrizko lau zati izaten dituzte: kanpoko kaskoa, inpaktuak hartzen dituen estaldura, betegarria eta eusteko sistema.

**Kanpoko kaskoa:** Oro har, oso gogorra den material batez eginda dago, baina inpaktuaren energia zabaltzeko diseinatuta dago, horrela, indarra gutxiagotzen du burura iritsi baino lehen. Gainera, burura iristen diren objektuak sar daitezten saihestu behar du. Oro har, material hauek bezalako batzuek eginda dago: plastikoak (polikarbonatoa, ATM, Dynema) eta zuntzak (karbonozkoak, beirazkoak, keclarra, tri composite).

**Estaldura:** kanpoko kaskoaren barruan dago eta inpaktua hartzeko balio du. «Koltxoia» efektua duela esan genezake. Oso garrantzitsua da kaskoa doitu egon dadin bere eginkizuna hobeto egin ahal izateko.

Talka baten ostean, hala kanpoko kaskoak nola estaldurak babesteko duten balioa galdu ohi dute, horregatik hori gertatuz gero kaskoa aldatu beharko dugu .

**Betegarria:** honen funtzioa erabiltzailearen konfort edo erosotasuna eskaintzea eta ongi gera dadin laguntzea da.

**Eusteko sistema:** kokotsean zehar doan uhala da. Kaskoa ongi eutsita mantentzen du eta mugitzea edo ateratzea eragozten du. Garrantzitsua da beti ongi lotuta egon dadin, izan ere, bestela, kaskoak bere eginkizuna galtzen baitu.

### EL MEJOR COMPANERO

En este diagrama se observan las partes constitutivas de un casco, que refuerzan la seguridad del asociado al utilizarlo.



## 6.7. Kaskoa mantentzea

Garrantzi handia du kaskoak dituen jarraibideak arretaz irakurtzea. Oro har, honako gauzak kontuan hartu behar ditugu:

- Ez dugu bere kanpoko itxura aldatu behar.
- Ez dugu autoitsaskorrik jarri behar edo ez dugu kolorez margotu behar.
- Petroliotan oinarritutako garbitzeko likidoz edo itsasgarri edo disolbatzaileren batez ez dugu busti behar, horrek kaskoaren materialari kimikoki eragin liezaioke, horrela, babesteko dituen funtzioak murriztuko liratekeela. Garbitu nahi baldin badugu, xaboi leun eta kaskorako gomendatu duten batez egin behar dute.
- Kaskoa ez dugu gasolina, garbitzeko produktu, ke kaltegarri edo gehiegizko beroetatik gertu gorde behar.
- Kaskoaren bisera garbirik mantendu behar dugu. Ikusmena galarazten edo aldatzen dizudan oso markatutako zarramazkarik ez egotea kontrolatu behar dugu eta hori gertatzen baldin badago bidera aldatuko dugu.
- Kaskoak talka edo kolpe gogorren bat jaso baldin badu, berau ordezkatzeko dugu. Bi edo lau urtean behin aldatzea gomendatzen dute. Izan ere, babesteko ezaugarriak hondatu ahal dira denbora eta eguneroko erabileragatik.

